

ZILARREZKO TXALAPARTA FESTA

Maiatzaren 15 eta 21 artean ospatuko da Hernanin 25. Txalaparta Festa

1985-1986 ikasturtean hasi zen lanean Hernaniko Udalak sustatu eta babestutako Musika Eskola Publiko berria. Eskola honek arautu gabe zeuden herri soinu-tresnak ikasteko aukera eskaini zuen eta horien artean txalaparta. Eskola hau izan zen Euskal Herrian txalaparta ikasteko aukera eman zuen lehenengoa.

Eskolaren bigarren ikasturtean irakasle eta ikasleen *Ttakun Ttan Ttakun* taldeak antolatuta eta Hernaniko Udalaren babesarekin, 1987ko apirilaren 9an *Txalaparta Festa* abiatu zen.

Geroztik, Txalaparta Festetan parte hartu dutenek urtero, edizioz edizio, txalapartari buruzko mota ezberdinetako ekarpen aberatsa egin dute.

Aurtengo edizioarekin lehen mende laurdena beteko da eta zilarrezko urteurrena modu berezian ospatu nahi da.

Egitarauari hasiera emateko txalapartari historikoen etxeetan barrena egiteko ibilaldia antolatu dute.

Horrela, maiatzaren 15ean, igandea, Sausta, Barriola-Barkaiztegi, Egaña-txiki, Bilandegi eta Erbetegi-Etxeberri bisitatuko dituzte. Etxeetako bakoitzean bertakoek beren familiko txalapartarien historia aurkeztuko dute hori osatzeko txalaparta saio bat emanez. Gogoan hartu beharrekoa da inork ibilaldira joateko asmoa badu antolatzaileei jakinarazi behar diela.

Astelehena libre utzi ondoren asteartean Biteri Kultur Etxean jarraituko du txalapartari zuzendutako asteak. Egun horretan arratsaldeko zazpi eta erdietan *Txalaparta Festa 25 Urtetan* erakusketari hasiera emango zaio eta hogeita bost urte horietan zer gertatu den azaltzen duen liburu batez eta DVD batez osatutako argitalpena aurkeztuko da DVDaren proiektioarekin eta zuzeneko musikarekin.

Ostegunean ere Biteri Kultur

Etxea izango da txalaparta zaleei proposatutako bilgunea. Arratsaldeko zazpi eta erdietan txalaparta protagonista duten Juan Aizpitarteren bi laburmetrai proiektatuko dira. Batek *Chaluparteo...* du izenburua eta bederatzita minuturen bueltan irauten du. Bestea hogeita bost bat minutu irauten duen *Ticzag* da eta zuzeneko musikaz lagunduta proiektatuko da. Emanaldi hau ikusteko bost euroko sarrera ordaindu beharko da.

dia izango da. Tartean DJ Barruk diseinatutako txalaparta elektronikoa estreinatuko da.

Larunbata izango da txalapartari eskainitako aste honetako azken eguna eta goizeko hamaiketatik txalapartak Hernaniko kaleak hartuko ditu. Ordu horretan emango zaio Ezkiaga pasealekuan *Txalaparta Festari* hasiera erromeriarekin. Bertan txalaparta saio libreez gain Hernani Musika Eskolako alboka,



Asteburuari hasiera emateko, ostiralean *Ttakun Ttan Ttakun* ikuskizuna eskainiko dute Juan Mari Beltran eta bere taldekoek Biteri Kultur Etxean arratsaldeko zazpi eta erdietan. Ikuskizun horren sorkuntzan arlo ezberdinetako artistak aritu dira elkarlanean. Hala, Juan Mari Beltran arduratu da musikaren konposizioaz, Mireia Gabilondo ikuskizunaren antolaketaz, Jon Maya koreografiaz, David Bernués irudiaz eta Xabier Lozano argiztapenez. Hauen lana ikusi eta entzun nahi dituenak sei euro ordaindu beharko ditu.

Ostiraleko egitarauak Kontrakan-txa Gaztetxean izango den txalaparta party aparteant izango du jarraipena. Bertan DJ Barru eta zenbait txalapartariaren artean eskainitako emanal-

dultzaina, trikitixa eta txistu taldeak ariko dira kale bueltan.

Ordubi eta erdietan herri bazkaria izango da eta bertara joan nahi duenak 22 euro balio dituen sarrera aldeztu aurretik erreserbatu beharko du. Honen segidan, arratsaldeko bostak aldera, Txalaparta Jaialdi Nagusiari hasiera emango diote herriko bertso eskolako bertsolariek. Oholtzan hurrengoak txalapartariak izango dira. Urte honetan aitzeko aurreko edizioetan parte hartu duten taldeak gonbidatu dira eta talde bakoitzak urteurrenako liburu eta DVDaz gain irudian ikus daitekeen Aitor Ruiz de Eguino artista hernaniarrak 25. Txalaparta Festarako espresuki egingutako zeramika jasoko du antolatzaileentzako eskutik.

KONTZERTUAK HM TXOKOAN

Udaberriko kontzertua

2011ko apirilaren 16an - 18,30tan - HM TXOKOAN

*Herri Musikaren Txokoarekin
elkarlanean*



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAK
INSTITUT CULTUREL BASQUE

URMULI Boskotea

Nugzar Kavtaradze: Zuzendari artistikoa, duduki, panduri eta ahotsa

Shalva Abramashvili: Duduki, tschuniri eta ahotsa

David Jimshitaschvili: Salamuri, duduki, tschonguri eta ahotsa

Tamaz Mamaladze: Panduri eta ahotsa

David Ratiani: Duduki, tschonguri eta ahotsa



Nugzar Kawtaradze-k zuzentzen duen URMULI boskotea 1991an sortu zen talde instrumental klasikoetan aritutako musikariek.

Georgiako talde honek eskaintzen duen errepertorio zabalean Erdi Arotik datozen abesti herrikoiak eta musika instrumentala topa ditzakegu. Abesti herrikoiak taldeko musikariek egokitu dituzte. Moldaketetan Georgiako musikaren ezaugarriak eta ohiko erak mantendu dituzte, soinu-tresnekin lagunduta bakarlariak kantatutako abestia eta abesti polifonikoa. Egitura horiek eskualdearen arabera aldatzen dira.

Taldeko kideak inprobisazioan maisu dira. Beraien emanaldietan Georgiako herri musikan zabalduen dauden soinu-tresnak era-

biltzen dituzte. Hauek herrialdeko bazter ezberdinetatik jasoak dira eta horietako batzuk, duduki deitutakoa esate baterako, munduan ez da beste inon jotzen. Salamuri, phanduri, duduki, chonguri, chiboni eta chuniri musikariek jotzen dituzten 30 soinu-tresna horietako batzuk bakarrik dira.

Urmuli taldeak sortu zenetik egin duen lanean azpimarratzekoa da bestela ahaztuta egongo ziren Georgiako herri musikako doinu askoren bilketa. Gaur egun CD eta DVDtan argitaratuta dagoen Georgiar kulturaren zati hori galtzea zailagoa da.

Jasotako abesti horiek taldea sortu zenetik eman dituzten kontzertu ugarietan emateko aukera izan dute eta horrela European zehar Georgiako kultura ezagu-

SOINU-TRESNAK

Duduki:

Soinu tresna luzea. Bere soinu eta atxikitze luzeak arnasketa jarraikiaren bidez bakarrik lortzen dira.

Panduri:

Gider luzeko eta hiru sokako arrabita.

Salamuri:

Zurezko flauta.

Tschuniri:

Gerrian jotzen den lau sokako biolina.

Tschonguri:

Hiru sokako arrabita apala.

tzera eman dute. Oraingo honetan gure artean izango ditugun artista hauek beraien herriko musikaren aberastasun harmoniko eta berezitasun polifonikoa Oiartzunen azalduko dute.

MUGARIK EZ Taldea



EGITARAUA

Txistuz:

*Soinu Txiki
Ama Euskadi*

Trikitiak:

Trikiti Doinuak

Pianoa eta Txirula:

*Bertso Polit Bat
Xarmagarria
Trip in Circassien*

Pianoa eta klarinetea:

Milafrangarrak

Taldeak:

*Cuibra
Larraburu
Bralia
Atxoarena
Antxoriz
Ortalertsu
Bixintxo
Maianak
Hegi
Atharrazterrak
Kanboarrak
Pilindros
Agur Xiberoa*

Taldeko partaideetako bat den Mikel Leizagoien aspaldi zebilen bere musikariekin Iparraldean zehar dantza jauziak herriz herri jotzen. Orduko talde haren izena Iparraldeko Musikariak zen.

Orduetik honuntz talde hartan Hegoaldetik hurbildutako musikariak sartu ziren eta geroztik jauziak, edozeinek dantzatzeko eta parte hartzeko oso egokiak, mugaren bi aldeetan jotzen dituzte.

Taldeak izandako aldaketak zirela eta izena aldatzea ere egoki irudituta Mugarik Ez izena jarri zioten.

Bien bitartean jauziak Hegoaldean orduan eta indar handiagoarekin ari ziren zabalitzen.

Taldea sendotu ahala, bere barnean ere aldaketa gehiago izan ziren. Batetik musikari gehiago

rekin soinu-tresna gehiago ere sartu ziren eta, bestetik, harmonikoki aberastu zen emaitza.

Musikari hauek beraien emanaldietan jotzen duten egitarauan nagusi dira jauziak, baina ez diote dantzarako beste doinuak jotzeari uko egiten.

Hala, Oiartzunen eskainiko duten emanaldian makina batek lehendik dantzatu dituen doinuak entzuteko aukera izango du.

TALDEKO MUSIKARIAK

Mikel Leizagoien: Klarinetea

Endika De Miguel: Flauta

Jose Inazio Elias: Txirula

Julen Maestro: Trikitia

Jesus Mari Begoña: Pianoa

Lander Bilbao: Bateria

Udaberriko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa: 18 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:



HERRI MUSIKAREN TXOKOAREN ESKAITZAN BIDE BERRI BAT HASTEKO VENEZUELAKO MUSIKA

Behin baino gehiagotan jaso izan ditugu eskaintza musikal oso interesgarriak baina ezin izan ditugu hartu gure ohiko ekitaldien egutegian sartzea ezinezkoa zelako eta gure agenda horretatik kanpo beste musika ekitaldirik antolatzen ausartu ez garelako. Hori bai, askotan hitz egin dugu gure artean eta gure inguruko jendearekin eta gehienetan esan dugu halako eskaintza eta aukera bereziak aprobetxatzen noizbait hasi beharko genuela.

Ba, beste askotan bezala oraingo honetan Venezuelako Bilboko Kotsuladotik musika venezuelarraren eskaintza interesgarri bat iritsi zaigu. Zehazki, apirilaren bukaera aldean *Propuesta Clínica Concierto Música Popular Venezolana* izeneko emanaldiarekin Venezuelatik etorritako bikote bat gure Txokora etortzeko proposamena jaso dugu.


Eskaintza berri honen aurrean berriz ere gure gogoeta

eta azterketa egin dugu eta horren ondoren, hemendik aurrera, ahal den neurrian eta posible izanez gero, aukera hauek aprobetxatzea eta gure ohiko egutegitik kanpo halako emanaldiak antolatzea erabaki dugu.

Horrela, herri musikaren aldeko gure eskaintzaren eta zerbitzuaren agenda iraunkorretatik kanpoko EMANALDI EDO ENTZUNALDI BEREZIEN bide berria irekitzen da.

Halako aukerak agertzen diren bakoitzean, gure gaitasunak eta mugak kontuan hartuta, gure inguruko herri musika zaleei proposamen horiek bideratzen saiatuko gara.

Beraz, eta bide berri honetan abiatzeko, oraingo honetan antolatu dugun emanaldia apirilaren 30ean arratsaldeko zazpi eta erdietan izango da Oiartzungo Ergoien auzoko Auzokalte elkartearen aretoan. "Vueltas y revueltas de la música popular venezolana" izenburuarekin Alejandro Calzadilla antropologoak eta Luis Pino "cuatrista" venezuelarrak musika saioa emango dute.



OTEGIZONA OIARTZUNGO INAUTERIETARA ITZULI DA

Pasa den otsailean Oiartzungo inauteriak ospatu ziren Ihote taldeak antolatuta eta Herri Musika Eskolako ikasle eta irakasleen parte hartzearekin. Baina hainbesteko festa izan zen hartan nabarmendu nahi genuena Oiartzungo inauterietako pertsonaia baten itzulera da. Azkenengo hamar urtetan desagertuta egon den Otegizona aurten itzuli da eta urtero bueltatuko den esperantza dugu.

Itzulera hau otearen azpian mozarrotuta ibili den Mendiburu Etxeberriko Xabierrekin hitz egiteko aprobetxatu dugu. Berari galdetu diogu pertsonaia honi buruz dakiena, baita Oiartzungo inauterietako beste pertsonaien inguruan ere. Jakin ezazue gure asmoa elkarrizketaren laburpena luze gabe buletinean argitaratzea dela.



Otegizona dantzariak zirikatzen. HMT

ERRIOXA, HERNANI ETA OIARTZUNGO GAITA, DULTZAINA ETA DANBOR ESKOLEN TOPAKETA

Aurreko urtetan bezala, 2011ko martxoaren 26an egin genuen hiru eskola hauen arteko gure eskualdeko topaketa. Hemaniko plazan elkartu ginen larogei joletik gora eta soinu-tresnak harturik berehala ekin genion Hemaniko alde zaharreko kaleetan zehar gure musika eskaini genuen kale buelta aparta emanez.

Festa giro ederrean jarraitu genuen 14:30etan sagardotegi batera bazkaltzera joan arte. Bazkalondan sagardotegian jarraitu genuen gure joaldiekin eta goizean ibilitako kale horietan bigarren kalebuelta handi batekin bukatu genuen aurtengo topaketa. Ekainean Errioxan elkartuko gara.



Gaita eta dultzainak jotzen Hernanin. HMT

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 692

Antolatutako taldeak: 31

Bisitari kopurua apirilarte: 28.803

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 13.670

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org

